Goienka2a

GANDIAGA TOPAGUNEA ZABALIK EGONGO DA ZAPATUAN

KIROLA: MIKEL ETXABE XEREZKO JOKALARIAREKIN BERBETAN /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko ekainaren 17a • V. urtea • 204. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

DEBAGOIENA

Mundumira berriro ere antolatzeko asmoa agertu dute /4

LORE ERRIONDO / UEU-KO ZUZENDARIA

"Gehiago dira UEU ezagutzen ez dutenak zer den eta zer antolatzen duen dakitenak baino" **/7**

DEBAGOIENA

Oraingo astean erosi du Fagorrek Brandt taldea /5

Bihar jasoko dute Aita Santuaren aitortza Fagorren sortzaileek

Mondragoeko kooperatiba mugimenduaren sortzaileei jendaurreko aitormen ekitaldia egingo diete bihar, ekainaren 18an, Arantzazun. Aita Santuak onartutako agiria eta zilarrezko domina jasoko dituzte Gandiaga Topagunea eraikinean. Omenaldiak, gainera, balio izango du Arantzazuko kultura topagune berria inauguratzeko. Lau gizonemakume laikok jasoko dute omenaldia: Alfonso Gorroñogoitiak eta Jose Maria Ormaetxeak, batetik; eta hildako Luis Usatorre eta Jesus Larrañaga sortzaileen izenean, euren alargun Pureza Arantzabal eta Carmen Galdosek.

Joan Maria Uriarte Donostiako gotzaina buru dela eukaristia ospakizuna egingo dute, 11:00etan, Arantzazuko basilikan. Mezaren ostean, 12:30ean, ekitaldi nagusia Gandiaga Topagunean izango da. **/5**

ASTEKO GAIA: ONLINE SUPERMERKATU ZERBITZUA DEBAGOIENEAN

Internet, eguneroko erosketak egiteko

Debagoiendarrek eguneroko erosketak Internetez egiteko aukera dute. Oraingoz, zerbitzu hori gurean eskaintzen duen bakarra Eroski da, nahiz eta guretik kanpo beste kate batzuek ere ematen duten zerbitzu hori. Martxoan inauguratu zuten zerbitzua eta, oso berria eta oraindik ezezaguna izan arren, astero dozena bat eskaera jasotzen dituzte.

Internet bidez erostea gero eta zabalduago dago, baina kosta egiten da ohitzea. Hala, eguneroko erosketak gero eta gehiagok egiten dituzte saretik, baina zabalkundea pixkanako kontua da. **/2-3**

- *Martxoaz geroztik, eguneroko erosketak Internetez egin daitezke*
- *Oraingoz, Eroskik bakarrik ematen du aukera hori ibarrean*



ENEKO AZKARATE

Oso ohikoa ez den arren, gure ibarrean ere badira eguneroko erosketak Internetez egiten dituztenak.

DEBAGOIENA

Haurreskolako partzuergoko langileak greban

Haurreskola partzuergoko langileek —0 eta 2 urte bitarteko haurrekin lanean dabiltzanak— mobilizazioak hasi dituzte lan hitzarmeneko hainbat puntu zehaztu barik daudela salatzeko eta horiek bideratzea eskatzeko. Arrasateko Bedoñabe Herri Eskolan bederatzi langilek eta Antzuolako, Elgetako eta Oñatiko herri eskoletako bina langilek bi orduko lanuztea egin zuten eguenean.

ESKORIATZA

TESAko 20 langileri aurretiko erretiroa eskaini gura diete

TESA enpresan (Talleres Escoriaza Sociedad Anonima) langile murrizketa egin gura dute. Suediako Assa-Abloy multinazionalak Leverange and Growth programa jarri du abian bere enpresetan, eta horietako bat da TESA. Helburua da ekoizpena areagotzea eta langileak berrantolatzea. Guztira, 10.000 langile kaleratu gura ditu Assa-Abloyk, eta horietatik 25 dira TESAko langileak. **/6**

OMU ZERAMIKAK
DEBAGOIENA

Bainu altzari eta osagaiak • Hidromasaje kabinak
Manparak • Eraikuntzako materiala

BILTEGIA/BULEGOAK: Meatzerreka 6 • Arrasate
943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43

ERAKUSKETA: Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko ekainaren 17a

Erosketak Internet bidez

■ Ibarrean lehenengoz, eguneroko erosketa 'on-line' egin daiteke, Eroskik hala eskainita

■ Gurean, jendea hasi da erabiltzen, eta astean zortzi bat eskaera jasotzen dituzte

LEIRE KORTABARRIA

Sagua erosketetarako orgari alternatiba bihurtu da. Izan ere, martxo hasieraz geroztik, debagoiendarrok premiazko erosketak Internet bidez egiteko aukera dugu. Internetez erostea ez da gauza berria; bai, ordea, supermerkatuko erosketak modu horretan egitea. Debagoienean salmenta modu horrekin hasi den denda Eroski da, *www.eroski.es* webgunean. Oraingoz, ibarrean diharduen beste inongo supermerkatu katek ez du modalitate hori eskaintzen; guretik kanpo, beste kate handi batzuek badute.

Sarean egon behar

Oraingoz, Eroski kateak bakarrik eskaintzen du eguneroko erosketak *on-line* egiteko aukera Debagoienean. Guretik kanpo, ordea, beste kate handi batzuek badaukate zerbitzu hori, hala nola: Carrefour eta El Corte Ingles etxeek. Hala ere, Interneten egotea nahitaezkoa da distribuzio-kate handiendako: ibarrean dauden Lidl eta Dia kateek euren eskaintzen, albisteen, promozioen... berri ematen dute webguneetan.

Era berean, Internet bidez erosketa ez, baina gestio batzuk egiteko aukera dugu Debagoieneko komertzioekin: hala, bideo-klubetako produktuak alokatu edo erreserba ditzakegu. Bestalde, gero eta hedatuago dago komertzioek euren bloga izatea: Debagoieneko 11 komertziok dute dagoeneko euren bloga *www.goiena.net*-en. Hor, saldu ez, baina informazio eguneratua ematen diete bezeroei, eta hartu-emana Internet bidez egin dezakete.

Debagoien osoan dago horretarako aukera, Aramaion izan ezik. Bergarako Eroskin prestatzen dituzte ibarrerako eskariak. Oraindik jende gutxik erabiltzen du, arduradunek dioskutenez: astean zortzi bat eskaera jasotzen dituzte. "Jendeak oraindik ez du sistema horren berri. Badirudi batzuek proba egitearren erabiltzen dutela", gaineratzen dute.

Eguneroko erosketak ez ezik, Internet bidez erosketa puntualak egitera ere ez ei dira askorik ausartzen debagoiendarrak, Asier Lazkano bergararrak dioskun moduan. Hark Internet bidez saltzen ditu kirol produktuak, eta oraindik gutxi batzuen fenomenoa dela deritzo.

Erosleen ohiturak

Internetez erostea gero eta normalagoa da. Espainiako Komertzio Elektronikoaren Elkarteak (AECE) *on-line* erosketak ikertu zituen iaz, eta erosketa mota horiek hazi egin zirela ondorioztatu zuten: hain zuzen, Estatuan, pertsona bakoitzak batez beste 438 euroko erosketak egin zituen 2004an. 2003an, guztira 1.530 milioi euro gastatu ziren *on-line* erosketetan, 2002an baino %31,5 gehiago. Era berean, Interneten erabiltzaileetatik %23,2k erosi zuten iaz zerbait saretik, 2003an baino gehiagok.

Hala ere, oraindik produktu jakin batzuk dira izar handiak. Hala, hegazkin, tren eta autobus txartelak izan ziren produktu erosienak (eragiketetatik %25,4). Segidan, liburuak (%15,7), ikuskizunetarako txartelak (%12,2), eta ikus-entzunezkoak eta musika (%10,3 bakoitzean).

Oraindik gehiengoa dira Internetez erosi ez duten internautak: 2003. urtean, %76,8.



LEIRE KORTABARRIA

1: *on-line* supermerkatuan erosten; 2: eskaera, banatzeko gertu; 3: banatzaileak etxera eramaten du erosketa, bezeroak aukeratutako ordutegian.

EROSTEKO MODUA

Eroskik abian ipini duen sistema edozeinek erabiltzeko modukoa da, beste salmenta-kate batzuek erabiltzen dutenaren antzekoa : izena eman behar da webgunean, eta produktuak orgatxo birtualean sartzen joan. Zerrenda baten agertzen dira produktuak eta une bakoitzean ordaindu beharrekoa. Bukatutakoan, banaketa-ordua aukeratu behar da. Eskaria jasotakoan ordaintzen da: astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 21:00etara bitartean; zapatuetan, 14:00etara bitartean. Zerbitzuak dakarren gainkargua da 5,98 euro eskaera bakoitzeko.

Erosketa mota hori egokiagoa da Internet ezagutzen duten bezeroendako, *on-line* erosteko joera dutenendako eta prezioa gehien baloratzen ez dutenendako –online erosketek gainkargu bat kobratzen dute. Zehazki, Eroskiren zerbitzuak erakarri nahi ditu emakumeak, 30-50 urte bitartekoak, erdi edo erdi-goi klasekoak, bikotekidearekin bizi direnak, umeekin, etxetik kanpo ere lan egiten duena eta etxean konexioa duena.

GUREAN, FENOMENO BERRIA

Eroski baikorra da *on-line* erosketen harreraren gainean: "Bezero gipuzkoarrek erosketa sistema alternatiboekiko interes handia dute, eta Interneten ibiltzeko tresnak ondo ezagutzen dituzte", dio Eroskik. Gasteizen, 2000. urteaz geroztik saltzen dute *on-line*, eta Bilbo Handian, 2001. urteaz geroztik. Gurean oraindik hedatuegi ez dagoen arren, salmenta mota horrek arrakasta handia du Donostia inguruan. Han ere martxo hasieran inauguratu zuen zerbitzu hori Eroski kateak. Bezeroek hori erabiltzeko arrazoi nagusiak dira erosotasuna eta denbora aurreztea. Ez erabiltzeko arrazoi moduan aipatzen dira ordainketa moduaz ez fidatzea (%19,9), motibazio falta (%17) eta norberaren datuak eman nahi ez izatea (%14,2). Gehien erosten diren produktuak dira likidoak, janaria, fruta eta drogeria, nahiz eta denetarik eros daitekeen, okela edo arrainetik hasi eta garbiketa produktuetaraino.

Debagoiendarrek ez dute 'on-line' erosteko ohiturarik, nahiz eta aukerak gero eta ugariagoak izan

Debagoienean, jendeak denetariko erosketak egin ditu orain arte: bai erosketa orokorra, denetariko produktuekin, baita 40 euroko erosketak ere.

Debagoieneko supermerkatu-bezero askok oraindik ez dute *on-line* erosketa ondo ezagutzen: "Internet erabiltzen ez dakit. Hala ere, beharbada inoiz animatuko nintzateke probatzera", dio Arantxak, Bergarako bezero batek. "Gazteendako, lanean dabiltzanendako eta astirik ez dutenendako, ondo ikusten dut. Niri ondo doakit supermerkatura bertara etortzea, pasio bat ematen", dio beste ohiko erosle batek, Benitak.

Internetez erosten dutenen arrazoi nagusiak dira erosotasuna eta denbora aurreztea

EROSKETA GUZTIEN %5,8

Kontuak kontu, Internet bidez erosteko aukerak gero eta ugariagoak dira, eta erabiltzeko gero eta errazagoak.

Eguneroko erosketa *on-line* egitea berria da, eta jendea badoa ohitzen, pixkana-pixkana bada ere. Hala, Espainiako Komertzio Elektronikoaren Elkartearen (AECE) datuen arabera, azken urteotan hazi egin da eguneroko erosketak Internetez egiten dutenen kopurua (*on-line* erosketa guztien %5,8), nahiz eta oraindik urruti dagoen bidaia txartelak erosten dituztenen kopurutik (erosketen laurdena). Saltzaileek espero dute erosketa-ohiturak aldatzen joatea.

ASIER LAZKANO / INTERNET BIDEZKO DENDA DAUKA

"On-line' saltzen duen beste inoren berri ez daukat"

Lau urte dira Asier Lazkano bergararrak *www.todo-deporte.com* Internet bidezko denda abian ipini zuela. *On-line* salmentan, ibarrean aitzindari dugu, eta baita horretara animatu den bakarrenetarikoa ere, Asierrek dioskun moduan.

Zelan animatu zinen denda Interneten jartzen?

Orain dela lau urte bururatu zitzaidan, eta egin egin nuen. Bakarrik hasi nintzen, gainera. Orain, diseinatzaile eta programatzaile banak egiten dute webgunean lan.

Debagoiendarrok badugu Internetez erosteko joera?

Ez, oraindik ez dago horretarako mentalitaterik. Badirudi jendea ez dela horrenbeste fidatzen Internetez erosiz gero eskatutakoa jasoko duela. Eskariak baditugu, baina ez da masiboa.

Internetez izanda, kanpotik ere erosten dizute? Webgunea hiru hizkuntzatan daukazu-eta...

Espainiatik-eta izaten ditugu eskaerak noizean behin. Beste herri batzuetatik ere, inoiz izaten dugu eskaera bat edo beste.

Gomendatzen diezu *on-line* salmenta Debagoieneko merkatariei?

Nik ez dut horretan dabilen beste inoren berri, behintzat. Honetan sartzeko, gustatu egin behar zaizu. Interneteko legea dela eta, oso garestia da, eta lan handia da: egunean sei edo zazpi ordu ematen ditut webgunea mantentzen.

Parte-hartzean eta talde-lanean oinarritutako metodologia

ELHUYAR aholkularitza

- Euskara-planak enpresa eta erakundeetan
- Esparruka landutako euskara-planak udalerrietan: lan/mundua, aisialdia, merkataritza...
- Gogoetak, plan estrategikoak eta erakundeen antolamendua hobetzeko prozesuak

www.elhuyaraholkularitza.net
aholkularitza@elhuyar.com
Tel. 943 372052 (Usurbil) 94 4668816 (Durango)

NUEVA IMAGEN IKASKETA ZENTROA
ILE APAINTZE-ESTETIKA
A.N.C.E.P.E.-REN AKADEMIA HOMOLOGATUA
MATRIKULA EPEA ZABALIK
Maila goreneko diplomatura
GASTEIZ
Santiago etorbidea 25
(autobus geltokiaren ondoan)
945 27 91 33

Uda Ikastaroak
Matrikulazioa zabalik!
Internet
Informatika
Programazio informatikoa
Mekanografia
Autocad
Photoshop, Freehand
Dreamweaver, Flash
Laguntza eskolak: Ingenieritza, Enpresa Zientziak, Batxilerra, DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)
AKADEMIA BASTIDA
Info: 943 79 35 33
bastida@bastida.es

GOIENKARIA

Bost kontinenteetako musikariak izan dira Arrasaten; musika emanaldien arrakasta azpimarratu dute antolatzaileek.

Mundumira berriro ere antolatzeko asmoa agertu du Mankomunitateak

Jaia berriz egitekotan hainbat gauza hobetu behar direla jakinarazi dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Mundumira jaia ospatu ostean, balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Azpimarratu dute musika emanaldiek izan duten arrakasta. Bestalde, jaia berriz antolatzekotan, hainbat ekintza hobetzeko beharra ikusi dute.

Euskal Herria aldizkariak antolatu eta Debagoieneko Mankomunitateko Kultura eta Turismo sailen babesean, Mundumira jaia egin zuten joan zen asteburuan Arrasaten eta inguruetan.

Antolatzaile eta babesleak gustura agertu dira eta jaiaren balorazio positiboa egin dute. "Munduko kultura ezberdinak elkartu dituen jai berri bat jaio da, formatu berri batean mota guztietako jendearengana hurbilduz", esan dute.

Jaiak izandako erantzuna ikusita Mankomunitatea prest legoke berriro egiteko. Horretarako, ordea, *Euskal Herria* aldizkariak egin behar du eskaintza.

MUSIKAREN ARRAKASTA

Ekitaldi aukera zabala zegoen iragarrita jaiaren baitan. Besteak beste, bost kontinenteetako musikariak entzun ahal izan ziren. Antolatzaileen esanetan, "Mundumira gauak Monterron parkean izandako jendearen babesa azpimarratzekoa da, baita zapatu arratsaldean Herriko Plazako Munduko Soinuak karpan izandako musika eskaintzak edukitako harrera ere".

Bestalde, Ibiltari mendi ibilaldien Euskal Herriko lehen azokak 23 partaide izan zituela jakinarazi dute. Bertan, ibilaldien gaineko informazioa eskuratzeko aukera izan zen.

Guztira, 175.000 euroko kostua izan du jaialdiak eta Mankomunitateak 42.000 ipini ditu

Hurrengo ekitaldi baterako hobetu edo aldatu beharreko hainbat gauza ere izan zirela jakinarazi dute antolatzaileek. "Artisau eta gastronomia azokak beste modu batera antolatu behar dira, eta haurrentzako ekintzak gune bakarrean biltzea da egokiena".

KAMISETAK

Jaiaren helburuetariko bat izan da bizi nahi genukeen mundu solidarioago batera hurbiltzea. Horretarako, Ternua etxearen elkartasun elastikoak ipini zituzten salgai. Zapaturako salduta zeuden 1.000 elastikoak eta lortutako 3.000 euroak Mundukide Fundazioak jaso ditu Mozanbikeko Marrupa proiekturako.

Jaialdirako erakunde publiko zein pribatuek eman dute dirulaguntza, eta antolatzaileek hori eskertu dute. Guztira, 105.000 euroko kostua izan du Mundumirak. Kopuru horretatik 75.000 euro erakundeek eman dute: Mankomunitateak,42.000 euro eta Foru Aldundiko Kultura eta Turismo sailek 23.000 euro.

ELKARRIZKETA/NAZIOTASUN EGUNA

KOLDO AZKOITIA/FORU ALDUNDIKO BOZERAMAILEA

"Gestioak egiteko ordezko bulegoak egokitu ditugu"

IRATI AGIRREAZALDEGI



Gipuzkoako Ogasun Sailaren egoitza nagusian izandako suteak eman du zeresanik azken egunotan. Gai horren inguruan debagoiendarrok jakin beharreko hainbat argibide eman dizkigu Koldo Azkoitiak, Diputatuen Kontseiluko bozeramaileak.

Urtebete eta erdi beharko omen da Ogasun Sailaren eraikin nagusia berritzeko. Bitartean nora jo beharko dugu?

Ordezko egoitzak egokitu ditugu; besteak beste errenta aitorpena egiteko sasoian gauden honetan jendeari eragozpenik ez sortzeko. Epeak ere lehengoak izango dira. Izan ere, sistema informatikoa berriz ere abian da.

Debagoiendarrongan izango du eraginik gertatutakoak?

Oro har ez du eragozpenik sortuko debagoiendarrongan. Izan ere, errenta aitorpena egiteko Bergarako bulegora jo behar du jendeak. Gainontzean, hainbat zerga Donostian ordaintzen dira, baina horretarako Okendo kalean eta Sekundino Esnaola kalean bulego bana egokitu dugu. Bestalde, Internet bidez ere egin daitezke hainbat gestio.

Gauzak noizko konpontzea espero duzue?

Oraingoz eraikina kanpotik baino ez dugu ikusi, eta horren arabera urte eta erdi beharko da konpontzeko. Hala ere, epe zehatzak aurrerago emango ditugu. Bien bitartean gure asmoa da normaltasunez lan egitea Ogasun Sailean. Horretarako, eraikin horretan lan egiten zuten 80tik gora langilek jadanik beste bulego batzuetan dihardute. Guztira, 314 dira eta datozen hamabost egunetan saiatuko gara toki berriak aurkitzen. Orduan jakinaraziko diegu herritarrei nora jo behar duten gestio guztiak egitera.

"Ogasun Saileko Errotaburuko langileak bulego berrietan hasiko dira lanean"

Ezker Batua kontrapasaren debekuaren alde azaldu da

I.A.

Ezker Batua-Berdeak pozik azaldu da Luxenburgoko Justizia Epaitegiak Gipuzkoako Foru Aldundiari zigorra jarri diolako. Diputazioa zigortzearen arrazoia da hark kontrapasa onartu egin duelako orain artean.

Alderdiak bat egin izan du ekologistekin ehiza mota horren gainean protestetan, ingurumena eta fauna kaltetzen baititu.

Patxi Coira batzarkideak esan du Batzar Nagusietan eskatuko duela "epaiketaren kostuak ez daitezela guztion diruarekin ordaindu".

Epaitegiaren hizkuntza egoerari buruzko mahai-ingurua egingo dute

EHEk salatu du urratu egiten direla hizkuntza eskubideak epaitegian

DEIANE ARRIETA

Debagoieneko Euskal Herrian Euskaraz taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu biharko, zapaturako, Bergaran. Besteak beste, mahai-ingurua. Horretan parte hartzeko gonbidatu dituzte justiziaren hainbat alorretaldeko kide bat.

Goizeko 11etan Nekane San Miguel epailea, Esteban Umerez Justizia Euskaraz elkarteko presidentea eta Xabier Yurrimendi Justiziako hizkuntza normalkuntzarako teknikaria bilduko dira mahaiaren bueltan. Moderatzailea Unai Iturriotz abokatua izango da. Bergarako epaitegiaren hizkuntza egoeraz hausnarketa eta eztabaida egingo dute. Eta herritar guztiak daude gonbidatuta Bergarako kultura etxean egingo den topaketara.

Ondoren, epaitegiaren aurrean ekitaldia egingo dute eta amaitzeko bazkaria egingo da.

DEIANE ARRIETA

Debagoiendarron hizkuntza eskubideak epaitegian aldarrikatu nahi dituzte EHEkoek.

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK URRATU

Zapatuko ekitaldien berri emateko prentsaurrekoa antolatu dute astean barrena ibarreko Euskal Herrian Euskaraz taldeko kideek. Diotenez, euskaldunen hizkuntza eskubideak urratu egiten dira Bergarako epaitegian. Izan ere, EHE taldeak emandako datuen arabera, Bergarako epaitegiko epaile, idazkari eta fiskalen %100 ez da gauza justizia administrazioko epaile funtzioa euskaraz betetzeko. Eta epai-barrutian administrari lanetan ari diren erdiek ez dute lana euskaraz betetzeko gaitasunik.

GEHIENAK, EUSKALDUNAK

Horren harira, kontuan izanik Debagoieneko populazioaren artean %20 bakarrik direla euskaldunak ez direnak, Bergarako epaitegiak euskaldunen hizkuntza eskubideak urratzen dituela salatu dute EHEkoek. Eta eskatzen dute euskararen normalizaziorako plangintza eraginkorra indarrean jartzea.

Nekane San Miguel epailea eta Esteban Umerez Justizia Euskaraz elkartekoa izango dira

Aldarrikapen horiek guztiak egiteko eta arazo horren inguruan gizartean eragiteko antolatu dituzte zapatuko ekitaldiak: 11:00etan mahai-ingurua kultura etxean, 12:30ean kale bilkura epaitegi aurrean eta, amaitzeko, bazkaria Etxagi jatetxean. Ibarrekoak gonbidatu nahi dituzte EHEkoek ekitaldiotan parte hartzera.

Aita Santuaren aitortza bihar jasoko dute MCCko sortzaileek Arantzazun

Joan Maria Uriarte Gipuzkoako gotzaina izango da eukaristiako buru

IRATI AGIRREAZALDEGI

Mondragoeko kooperatiba mugimenduaren sortzaileei jendaurreko aitormen ekitaldia egingo diete bihar, ekainaren 18an, Arantzazun. Aita Santuak onartutako agiria eta zilarrezko domina jasoko dituzte Gandiaga Topagunea eraikinean.

Omenaldia lau gizon-emakume laikok jasoko dute: Alfonso Gorroñogoitiak eta Jose Maria Ormaetxeak, batetik; eta hildako Luis Usatorre eta Jesus Larrañaga sortzaileen izenean, euren alargun Pureza Arantzabal eta Carmen Galdosek.

Joan Maria Uriarte Donostiako gotzaina buru dela eukaristia ospakizuna egingo dute 11:00etan Arantzazuko basilikan. Mezaren ostean, 12:30ean, ekitaldi nagusia Gandiaga Topagunean izango da. Bertan, San Silvestre aita santuaren agiriak eman eta zilarrezko dominak banatuko dizkiete omenduei.

ELIZAREN DOTRINA LANEAN ZABALDU

Mondragon kooperatiba mugimenduaren sortzaileei eliza katolikoak aitormena zergatik egin dien azalduko dute ekitaldian; gizon-emakume horien bizitzaren berri ere emango dute bertan. Aitortza jaso aurretik Alfonso Gorroñogoitiak hitz egingo du omenduen izenean.

Aitormena Joan Paulo II.a Aita Santuak hil aurretik onartutakoa da. Hau da aita santu batek era horretako aitortza bat gipuzkoar laiko kristauei egiten dien lehen aldia. Fedeak eraginda Gipuzkoan zein Euskal Herrian lan arloan elizaren dotrina zabaltzen egindako ahalegina saritu dute horrela.

DEBAGOIENEAN LABUR

Debagoieneko zortzi dantzari ariko dira Euskal Herriko Dantza Txapelketan

Euskal Herriko Dantza Txapelketa jokatuko da domekan Segurako pilotalekuan, arratsaldeko 6etan hasita. Hamabi bikotek eman dute izena eta parte hartuko duten 24 dantzarien artean, zortzi bergararrak dira: Alex Torre-Josune Fernandez, Mikel Igartua-Ibane Baseta eta Asier Ena-Maite Lazkano bikoteak; Miren Illarreta donostiarrarekin bikote egiten duen Aitzol Ena eta Xabier Azurmendi zegamarrarekin aritzen den Janire Urbieta. Azken urteetan nagusitu diren Parrondo anai-arrebek ez dute parte hartuko.

Oraingo astean erosi du Fagorrek Brandt talde frantziarraren gehiengoa

Fagorrek oraingo astean erosi du Brandt Taldearen %90, hain zuzen ere, 162 milioi euroren truke, Espainia eta Frantziako konpetentziaren babeserako autoritateen bermea jaso eta gero. Fagorrek lehendik bazeukan erosi berri duen konpainiaren beste %10. Hortaz, osoa eskuratu du. Brandt taldea liderra da Frantzian etxetresnetan. Erosketa horrekin Fagor bosgarren konpainia izango da Europan etxetresnen alorrean, %6ko merkatu kuotarekin. Aurten 1.800 milioi euro fakturatzea espero du Fagorrek eta datorren urtean 2.000 milioi euro. Fagorrek 11.000 langile izango ditu 16 lantegitan eta sei herrialdetan sakabanatuta (lau Europan, eta bana Afrikan eta Asian). Fagorrek munduko 100 herrialdetan ditu harreman komertzialak, 12 markaren bitartez: Fagor, Edesa, Aspes, Mastercook, Brandt, De Dietrich, Thomson, Vedette, Ocean, San Giorgio, Sauter eta Saumet.

BERGARA

Eduardo Arrillagaren argazkiak uztailean Aroztegi aretoan

Eduardo Arrillaga argazkilariaren erakusketa izango da ikusgai Aroztegiko aretoan uztailaren 1etik 24ra. Abdon Juaristi zenaren margo erakusketa antologikoaren ondoren, Aroztegin egingo duten bigarren erakusketa izango da Arrillagarena.

Ibilbide luzea eta oparoa egin du argazkilaritzan Eduardo Arrillaga elgoibartarrak. Bergaran ikusgai izango den *Sokamuturra* izenburuko erakusketa zuri-beltzeko 34 irudiz osatuta dago. 1992-2001 epean ateratako argazkiak dira. /E.M.

IKER BARANDIARAN

ESKORIATZA

TESAko 20 langileri aurretiko erretiroa eskaini gura diete

TESA enpresan (Talleres Escoriaza Sociedad Anonima) langile murrizketa egin gura dute. Suediako Assa-Abloy multinazionalak *Leverange and Growth* programa jarri du abian bere enpresetan, eta horietako bat da TESA. Helburua da ekoizpena areagotzea eta langileak berrantolatzea. Guztira, 10.000 langile kaleratu gura ditu Assa-Abloyk, eta horietatik 25 dira TESAko langileak. 1941ean sortu zuten TESA Eskoriatzan, eta sarrailak, segurtasun-ateak eta hoteletarako txartel bidezko ate-sistemak egiten dituzte. Gaur egun, lau enpresak osatzen dute: Eskoriatzako eta Irungo TESAk, Madrilgo STSk eta Mopresak. 100 langiletik gora daude Eskoriatzako enpresan, eta murrizketak 20 langileri eragingo die. Horiei aurretiko erretiroa eskaini gura die enpresak. /I.B.

ARETXABALETA

Martitzenean aurkeztuko dute Euskara Biziberritzeko Plana

Lehenago egitekoak ziren, baina arazo batzuk tarteko datorren martitzenean, ekainak 21, aurkeztuko dute Euskara Biziberritzeko Plana herrian. Udaletxe zaharrean izango da ekitaldia, 19:00etan, eta planaren garrantzia dela-eta, eragileak eta herritarrak gonbidatu dituzte.

EGUENEAN, SAN JUAN BEZPERA

Eguenean, ekainak 23, San Juan bezpera ospatuko dugu. Arratsaldean dantzak eta buruhandiak izango dira Herriko Plazan, eta gauean, San Juan sua eta tantaiaren igoera. /M.A.

ANTZUOLA

San Juan bezperako ospakizunak eguenean, hilak 23

Urteroko ohiturari jarraituz, San Juan bezperako ospakizunak izango ditugu datorren asteko eguenean, Herriko Plazan. Hantxe, arbola jasoko dute; ondoren, herriko dantzarien saioa izango dugu, eta sua ere egingo dute. Azkenik, balkoi eta leihoetako lore ederrei saria emango diete. Bi sari emango dituzte aurten, eta ez dituzte alde zaharreko eta berriko balkoiak bereiztuko. Bi saridunek 90na euro jasoko dute.

Domekan, berriz, ekainak 26, Uzarragan ospatuko dituzte San Juanak. /A.I.

OÑATI

Zabalik dago lehiaketa San Migel jaietako egitarauaren azalerako

Dagoeneko zabalik dago lehiaketa San Migel jaietako ekitaldiak ekarriko dituen egitarauaren azala aukeratzeko. Udaleko Kultura batzordeak antolatu du, beste behin, lehiaketa.

Lana edozeinek aurkez dezake, baina badaude oinarri batzuk jarraitu egin behar direnak. Bederatzi puntutan jasotzen dira lehiaketara aurkezteko bete behar diren oinarriak. Horien artean: lehiaketa horretan parte hartzeko oñatiarra izan edo Oñatin bizi beharra dago; erabil daitekeen teknika librea da; ezinbestekoa da testu hau agertzea: *Oñatiko Jaixak 2005*; lanak aurkezteko epean uztailaren 15a arte dago zabalik eta kultura etxean edo turismo bulegoan aurkeztu behar dira; bi sari emango dituzte: lehenengoak 250 euro eskuratuko ditu eta bigarrenak 125 euro; lanak egilearen sinadurarik gabe aurkeztu beharko dira eta atzean leloa eraman beharko dute. Egilearen datu pertsonalak gutun-azal itxi batean entregatu beharko dira eta gainean ere leloa idatzi beharko da; saritu gabeko lanak epaimahaiak erabakia eman ondoren jaso ahal izango dira; saritutakoak Udalaren eskuetan geldituko dira. Dena dela, oinarri guztiak kultura etxean eskura daitezke.

SAN MIGELAK

Irailean dira San Migelak, baina jaiak prestatzen hasita daude. Herri Eguneko tabernan egoteko epea hilaren 10ean bukatu da, eta orain egitarauaren azal lehiaketa zabaldu dute. /O.E.

Zertzelada

San Migelak irailean dira, baina Herri Eguneko tabernan egoteko epea amaitu da, eta orain egitarauaren azal lehiaketa zabaldu dute

ARRASATE

Gelma lantegia eta etxe batzuk eraisten dabiltza, etxe berriak eraikitzeko

Bi etxe bota zituzten martitzenean Gelma lantegitik gertu. Harrezkero, eraiste lanak egiten dabiltza Gelman: barruko eraikin zaharrak, biltegia eta zubi bat botako dituzte, besteak beste. Hilabete eta erdiz jardungo dute eraisten.

Modu horretan, 47.000 metro koadro eskuratuko ditu Obenerreka enpresa sustatzaileak, etxebizitzak eraikitzeko.

Gelmaren eraikin nagusia, berriz, bere horretan utziko dute, eraikin adierazgarrienetarikoa delako. Bere horretan utziko dute, baita ere, ertzain-etxea.

446 etxebizitza eraikiko dituzte Gelman: 321 sustapen pribatukoak eta 125 babes ofizialekoak. /U.M.

U.M.

Etxeak botatako lekuan eraikiko dute sustapen pribatuko lehen blokea.

ARAMAIO

Bi aramaioar bertsolari txapelketako finalean

Bihar, zapatua, jokatuko dute Euskal Herriko Eskolarteko XVII. Bertsolari Txapelketako finala. Probintzia guztietako ordezkariak izango dira lehian; Hala, bada, Arabatik lau lagunek parte hartuko dute: bik txikien mailan eta beste bik nagusien mailan. Hain zuzen ere, Aramaioko bi gaztek ordezkatuko dute Araba txikien mailan: Xabi Igoak eta Mikel Serratok.

Txapelketa 11:00etan hasiko da txikiendako eta 16:00etan, nagusiendako. Altsasuko Burunda pilotalekuan izango da. /U.M.

ELGETA

Kirol arloa dinamizatzeko taldearen bilera astelehenean

Herrian kirol jarduerak dinamizatzeko eta koordinatzeko talde bat sortu nahi dute. Taldearen nondik norakoak zehaztu eta lehen pausoak emateko ekainaren 20an, astelehenean, bilera egingo dute kultura etxean 19:30ean. Kirol taldeetako ordezkariak zein kirola gustuko duten norbanakoak daude gonbidatuta bilerara. Asmoa da ahalik eta kirol gehienek ordezkaritza izatea talde horretan eta urtean barrena herritar guztien neurriko kirol ekintzak abian ipintzea. /I.A.

LEINTZ GATZAGA

San Juan bezperan, San Migel plazan egingo dute afaria herritarrek

Gatzagan ere ospatuko dituzte San Juan jaiak. Hala, datorren eguenean egingo dute, hilak 23, urteroko herri afaria. Halaxe azaldu digu Jon Sasiainek, Kultura zinegotziak: "20:00ak aldera, gaztetxoendako bonba japoniarrak botako ditugu, eta gero hasiko gara poliki-poliki barbakoak prestatzen. Urtero moduan, saiheskiak eta sardinak erreko ditugu parrillan, eta afaldu eta gero egingo dugu San Juan sua, plazan bertan". Herritar guztiak daude gonbidatuta. /X.U.

Aurten lehendabiziko aldiz, Eibarren ere antolatu ditu ikastaroak UEUk. Miarritze eta Iruñekoetatik ezberdinak izango dira, bai materiaz eta baita izaeraz ere. Euskal Unibertsitateaz eta UEUren martxaz ere galdetu diogu zuzendariari.

OIHANA ELORTZA

LANDER GARRO

Lore Erriondo

UEU-KO ZUZENDARIA

"Gehiago dira UEU ezagutzen ez dutenak zer den eta zer antolatzen duen dakitenak baino"

EUSKAL UNIBERTSITATEA

"Euskal gizarte osoak onartu eta eraiki behar du, eta nahiago dut lanean jarraitu zabaltzeko data jarri eta zain egon baino; hala ere, beste 30 urte baino lehen irekiko dugula uste dut "

UDAKO IKASTAROAK

"Guztira 35 ikastaro eskainiko ditugu aurtengo udan Miarritzen, Iruñean eta Eibarren; edonorendako dira, euskaraz jakitea da baldintza bakarra"

Norendako ditu aurten ateak zabalik UEUk?

Edonorendako. Baldintza bakarra dago: euskaraz jakitea. Egiten dugun guztia euskara hutsean egiten dugu: ikastaroak, hitzaldiak, jardunaldiak...

Unibertsitate mailarik ez dutenendako ere zabalik dago?

Bai. Egia da normalean egiten dugun eskaintza unibertsitate mailako eskaintza izaten dela. Baina udako ikastaroetan, dibulgaziorako ikastaroak ere antolatzen ditugu. Prestatzen ditugunean, unibertsitate mailarekin pentsatzen dugu, baina ez diogu inori inongo titulaziorik eskatzen, inoiz, aski da gaian interesatuta egotea. Udako ikastaro asko jakin-mina asetzeko eta zaletasuna betetzekoak dira.

Orain arte Miarritze eta Iruñearekin lotu ditugu UEUko udako ikastaroak, baina aurrerantzean Eibarren ere egingo dituzue, ezta?

Gainera, Eibarkoetan beste formatu bat eskaintzen dugu. Miarritze eta Iruñean barnetegi planteamenduarekin antolatzen ditugu eta norberak aukeratzen du zenbat egunerako joan. Egunez eskolak daude, eta iluntzeetan eta gauetan, saio osagarriak. Baina jende guztiari ez datorkio ondo aukera hori, eta Eibarko ikastaroek beste antolaketa bat izango dute: jardunaldiak eguerdi parte aldera arte izango dira, goizetik, jendeak egunero egin ahal izango du joan-etorria. Eta praktikoagoak izango dira.

Zenbat ikastaro eskainiko dituzue aurtengo udan?

35 guztira: 12 Miarritzen, uztailaren 4tik 8ra; bost Eibarren, uztailaren 11tik 15era; eta 18 Iruñean, uztailaren 18tik 22ra. Tokien arabera banatzen ditugu, eta ez ditugu errepikatzen. Izaera herrikoia eta aktiboa sortu nahi dugu ikastaroetan, eta aurten ere gai horretan aditua dena eta ekarpen berriak egiteko duen jendea dator.

Zer eman dio Eibarko Markeskoa etxeak UEUri?

Hasteko, egoitza akademiko bat izateko aukera, orain arte sekula izan ez duguna. Markeskoa etxeak eskaini digu jarduera akademiko bat garatu ahal izatea eta udako ekitaldietatik urte guztiko ekitaldietara pasatzeko aukera. Duela lau urtetik hona erreferentzia irabazi du etxe horrek. Bilakatu da, batetik, jardunaldiak, titulazioak, mintegiak eta ikastaroak eskaintzeko gune, eta bestetik, elkargunea, unibertsitate mailako eta oro har hezkuntza munduko euskal eragileen topagune, bilgune.

Ahalegin ekonomiko handia egitea ere eskatu digu horrek, eta poliki-poliki ari gara atontzen, ahalik eta etekin handien ateratzeko. Izan ere, gu gara erabiltzaile nagusiak, baina beste hainbat elkartek eta erakundek ere erabiltzen dute euren bilerak edo mintegiak egiteko. Guk geuk oso beharrezkoa genuen horrelako etxe bat, eta jauzi egiteko aukera eman digu.

1980a ezkero zara zu UEUko kide. Nola ikusi duzu UEUren ibilbidea aurretik eta ostean?

UEUra hurbiltzen hasi nintzenetik nabil lanean han, eta bilakaera handia gertatu dela ikusi dut. Handitzen ikusi dut, profesionalizatzen, gero eta adar gehiago sortzen. Gaur 30etik gora sail ditugu, baina garai batean sail baten barruan pilatzen ziren asko. Eta ez da soilik kopuruz hasi, baita egitura eta eguneratze aldetik ere. Puntapuntako gaiak eskaintzen dira, baina ez euskaraz direlako; espainolez edo frantsesez, adibidez, ez dituzte, ziurrenik, horren maila handiko ikastarorik emango.

Baina ezagutzen du jendeak UEU?

Uste dut gehiago direla ezagutzen ez dutenak ezagutzen dutenak baino. Herri honetan oso aktiboak gara, lan asko egiten dugu, baina komunikazio zubi nahiko kaskarrak ditugu eta informazioa kudeatzeko lanetan ez gabiltza oso ondo. Askotan ez dakigu ondokoa zertan dabilen. Eta sumatzen dut ikasle askok, eta gizarteak orokorrean, ez dakitela UEU existitzen denik, zer den, zer antolatzen duen edo zein egitura duen.

Ze zailtasun izan ditu UEUk handitzeko eta profesionalizatzeko eta ze oztopo ditu egun?

Zailtasun guztiak hasieran. Orain gero eta gutxiago, baina ez dugu ahaztu behar borondatezko lana dela jendeak UEUn egiten duena. Bulego bat dugu eta horko jendeak kobratzen du dirua, baina gainerako guztiok, zuzendariak barne, borondatezko lana egiten dugu. Ez dugu diru truke egiten, gure lanorduetatik kanpo egiten dugu. Honen alde ona da gogotsu egiten dugula lan, eta horrek laguntzen du gauzak ondo egiten. Eta alde txarra da askotan denbora faltatzen zaigula.

Bestalde, ez dugu irabazi asmorik eta baliatzen gara existi daitezkeen dirulaguntzez gure proiektuak betetzeko. Gerta liteke askotan proiektuak izatea baina dirurik ez edukitzea horiek egiteko. Horrez gain, ez dugu aitortua, legez, unibertsitate izaerarik, elkarte izaera baizik. Horrek esan nahi du ezin ditugula unibertsitate mailako tituluak eman eta bai agiriak. Beraz, onarpena duen beste unibertsitate batekin elkarlanean ematen ditugu tituluak.

Euskal Unibertsitatea da UEUren helburuetako bat. Nola doa?

Gu sortu ginenean, duela 33 urte, Euskal Unibertsitatea sortzeko aldarrikapena bizi genuen eta Euskal Unibertsitatea sortzen laguntzeko hasi ginen lanean: irakasleak prestatzen, ikas-materiala sortzen eta ikasleak gaitzen. Eta oraindik lanean jarraitzen dugu. Euskal Unibertsitatea da Euskal Herri osoko unibertsitatea izan daitekeena, eskaintza guztia euskaraz bermatzen duena eta, eleanitza izan arren, euskaraz funtzionatzen duena. Baina oraindik ez da horrelako unibertsitaterik existitzen Euskal Herrian.

Egin genuen azken kongresuan analisi bat egin genuen. Erabaki zen UEUk motor moduko bat izan behar duela aurrerantzean Euskal Unibertsitatea sortzeko. Horretarako, zuzendariondokoa izendatu zen, arduratuko dena bereziki Euskal Unibertsitatearen ildoa garatzeaz. Sustapen batzorde bat ere sortu zen, eta Euskal Unibertsitatearen proiektu horretan urratsak egiten ari da batzorde hori, gizarteko beste eragile batzuekin batera.

Zer moduz ari da lanean sustapen batzorde hori?

Ondo, baina lan handia dago egiteko. Euskal Unibertsitatea euskal gizarte osoak onartu eta eraiki behar du. Ezin dugu guk bakarrik jarri erritmoa, baina bai koordinatu, sustatu, bultzatu, dinamizatu, zirikatu edo landu. Lanerako gogoa ere badugu, baina zabaldu nahi dugu mezu hau: Euskal Unibertsitatea da guztiona, guztiondako eta euskaraz.

Noiz zabalduko du matrikulazio epea Euskal Unibertsitateak?

Eragile askok parte hartzen dute eta nik nahiago dut lanean jarraitu data bat jarri eta data iritsi arte zain egon baino. Data hori iritsi arte itxaron ordez, ekarri egingo dugu. Datorren urtean ez, baina beste 30 urte baino lehen zabalduko ditu ateak. Guztion esku dago laster zabalik izatea Euskal Unibertsitatea.

Martxoan hartu zenuen UEUko zuzendari kargua. Zer moduz hasi duzu agintaldia?

Ez dut aspertzeko betarik izan, egia esan. Proiektu asko ditugu eta taldea langilea, fina eta ilusioz beteta dago; beraz, oso gustura.

Zer falta du UEUk?

Egonkortasuna, azpiegitura eta aitortza juridikoa falta ditu, adibidez. Dena dela, gogo, borondate, ilusio eta proiektuetan ez dugu gabeziarik eta hori oso garrantzitsua da. Finantzaketa aldetik, dirulaguntzak eskatu ditugu eta erantzunak jasotzen hasi gara, baikorrak orain arte.

Gutunak

Eskola kirola

Maiatzaren 26an eta 27an Eskola Kirolari buruzko jardunaldiak egin dira Miramar jauregian, Eusko Ikaskuntzaren Hezkuntza Sailak antolatuta, SHEE/IVEF erakundeak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundien laguntzarekin.

Jardunaldi horien helburua gure herrian eskola kirolaren antolaketa aztertzea izan da, une honetan iraganbidean egon eta egokitzen ari baita. Ereduari buruz dauden interes eta ikuspegi ezberdinak kontuan edukiz, ikusi genuen eskola kirolarekin zerikusi duten kirol agente guztiak bildu behar genituela, denon artean, jarrerak hurbildu eta irizpideak batzeko, horrela eredua bide zuzenean aurrera eraman dezagun.

Foru Aldundiak, Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuko Kirol Zuzendaritza Nagusiaren bidez, Gipuzkoan eskola kirolaren eredua aurrera eramateko eskumena du eta jardunaldi horiek ematen dioten aukera horretaz baliatu nahi izan du gai horri buruz duen iritzia jendeari azaltzeko.

Kirolaren Euskal Planak argi aldarrikatzen du eskola kirola dela Kirolaren Euskal Sistemaren oinarria. Euskal Herrirako eskola kirolaren eredu propio batean oinarritzen da. Eredu horrek unibertsaltasun printzipioa defendatzen du, hau da, derrigorrezko eskolatze aldian dauden ikasle guztiak biltzen dituen eredua eta helburu nagusi kirol kultura iraunkorra ezartzea du, kirol modalitate ezberdinak ezagutuz eta lehiaketa bidez edo jolasaren bidez praktikatuz, bakoitzak duen borondate, gaitasun fisiko eta osasuna kontuan edukita, eta eskoletako ikasle ezinduen integrazioari jaramon handia eginez.

Ume eta gazteak integralki hezteko balio behar dutela esanez legebiltzarrak eta gizarteak emandako mandatua betetzen dute oinarrizko printzipio horiek, hezkuntza prozesu orokorra osatzeko berebiziko jarduera delako, batez ere bizi ohitura osasungarriak sortzeari dagokionez, Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioei eta aldarrikatu berri den Ume eta Gazteen Atentzio eta Babesaren Legeari jarraituz, eta adin goiztiarretan jarduera fisikorik ez egiteak dakartzan arazoak direla eta, gizarteak duen kezkari jaramon eginez.

Gainera, seinalatu behar dugu metodo hori integrala eta integratzailea dela. Integrala, kirolak eta jarduera fisikoak egiteko eskaintza posibilitate guztiak hartzen dituelako, eta, integratzailea, eskolako adinekoekin zerikusi duten gizarte agente guztien lankidetzaren bidez egituratzen delako:

1. Eskolen bidez, Heziketa Erkidego gisa (ikasleak, irakasleak eta gurasoak) hartuta, parte hartzeko oinarrizko gune dira, batez ere 0 eta 11 urte bitarteko adinetan.

2. Kirol federazioen bidez, nahiz lehiaketako, nahiz sustapen eta teknifikazioko programak, klub eta ikastetxeekin batera, teknikoki aurrera eramaten laguntzen dutenak baitira.

3. Kirol kluben bidez, kirol heziketan ikastetxeekin batera zuzeneko lankide baitira eta baita 12 eta 18 urte bitarteko gazteak parte hartzeko funtsezko egitura ere, kirol errendimendua eta teknifikazioa aurrera ateratzeko oinarrizko gune izateaz gain.

4. Lurraldeko herri eta eskualdeen bidez, kiroldegiak jartzen baitituzte eredua gauzatzeko eta urtean aurrera eramaten diren programetako herrietako agenteak koordinatzen baitituzte.

5. Foru Aldundiaren bidez, kirol programak diseinatzen baititu aipatu agente guztiekin batera, denon erakundeek (Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak) emandako arautegia garatu eta jardueren gastua, zati batean, finantzatzen baititu.

6. Eusko Jaurlaritzaren bidez, gai horri buruzko kirol legeria garatzeko arauen bidez eredua erregulatzen baitu.

Akatsak baditu ere, eta noski dituela, eta hura aurrera eramaten hutsegiteak egin baditzakegu ere, egin egiten baititugu, eredua ona dela sinistuta gaude, ez bakarrik kirol ekintzak eta jarduera fisikoak eskoletako ikasle guztiak egiteko aukera bermatuta dagoelako, baizik eta, gainera, bermatzen duelako Gipuzkoako edozein mutiko edo neskatoak, gaitasun eta jarrera egokiak baditu, bere kirol ibilbideko maila garaienetara iristea, nahiz taldekakoetan nahiz banakakoetan, Kultura Fisikoaren eta Kirolaren 5/1988 Legea eman zenetik eta Euskal Herriko Kirolari buruz ekainaren 11n emandako 5/1988 Lege berrian oinarrituta, gipuzkoar kirolaren emaitzetan frogatuta geratu den bezala.

Gure seme-alabak hobeto hezita egongo dira eta osasuntsuagoak izango dira kalitateko kirola eginez.

FERNANDO TAPIA ALBERDI
(GIZARTE ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA)
Donostia

Nekane

Nekane San Miguelek *Argia* astekarian idatzi zuen azken artikulua irakurri nuenean sorpresa handia hartu nuen. Ez gaude ohituta halako kritika gogorrak irakurtzen, ezker abertzalegoa barrutik oso ondo ezagutzen duen pertsona batek idatzita. Bi gutun irakurri ditut gerora GOIENKARIAn artikulu horren aipamena egiten dutenak.

Julen Mendizabalek idatzitakoan honako hauek ziren bere argumenturik gabeko komentarioak: "testu zikina", "gorrotoz betea"; "astakeriak idatzi ditu"; "epaile espainiar batekin ez du politikaz eztabaidatuko."

Pertsona honek ez du jakingo Nekanek urte asko daramala Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubideen defentsan. Abokatu moduan euskal preso politikoak, emakume erasotuak, langile despedituak.... defenditu zituen. Epaile moduan, auzitegietan euskara erabiltzen aitzindaria izan da. Ezaguna izan zen Juan Mari Atutxak bere aurka hasitako kanpaina ere, Nekanek hiru ertzain prozesatu zituenean kale-bilkura baketsu bat bortizki disolbatu zutelako.

Juan Mari Urrutiak, berriz, pentsatzen du Nekane Ezker Abertzalearen legez kanporatzearen alde dagoela. Honek ere ez du Nekane ezagutzen.

Nire ustez, Nekaneri gertatzen zaiona da kokoteraino dagoela. Eta aurreko urteetako kontraesan batzuen errepasoa egiten du (berak gehiago aipatuko lituzke horretarako libre balitz), gaur egun Ezker Abertzale Ofizialak ere errespetu txikia erakusten duelako hurbilen duen alderdi eta jendearenganako, bereziki bere konsigna eta dogmak oso-osorik onartzen ez dituztenean.

Ezker Abertzale Ofizialak oso gaizki digeritzen ditu bere ingurutik jasotzen dituen kritikak eta ondorio okerretara ailegatzen da horrelakoetan. Iraganean defenditutakoa edo esandakoa gogora ekartzen badute, orduan "ez da garaia kontu zaharrez hitz egiteko". Gaurkotasuna eskatzen duzue. Zuek al duzue iragana erabiltzeko esklusibitatea?

Juan Mari, Nekaneren zergatiei buruz beste bueltatxo bat eman. Anoetako adierazpenaren laugarren konpromisoan sentsibilitate guztien defentsa egiten du Ezker Abertzaleak. Halere, besteendako duen hiztegian, oso erraz aukeratzen ditu "lapurrak", "traidoreak" eta antzerako berbak (hau ere gaurkotasuna). Eta gainera, perla horiek jasan behar dituztenengana jotzen du gero sarri, sinadura, atxikimendu, diru eta babes bila.

Ahalegin zaitezte azken hauteskundeetan agertu duzuen indarra indartzen eta berriak batzen (ez ahaztu "bederatzi" diputatuak "hamalau" izan zirela orain dela zortzi urte).

Eta Nekanek bere artikuluan dioen bezala, "ez dakigula egun saminik etorri gure etorkizunaren jabe izateko bide horretan" (por zierto, Julen, ez dut uste Matildek eta Mayor Orejak horrelakorik idazten dutenik).

AITOR ITURRIAGA
Arrasate

Lozorroan

Lozorroan jarraitzen dugu; gureak eta bost egin beharko ditugu berriro ere esna eta bizirik sentitzeko. Printze Urdinaren musu bakarrak ez digu loa etengo hala ere.

Printze mordoxkak musukatu beharko dute luzaroan geldotasunak jota erabat sorgorturik dagoen gure Edurne Zuri, noizbait energia osoz berpiztuko bada.

Gauza jakina da noizbehinkako ahaleginek ez dituztela beti lortzen espero genuen erantzuna; horiek horrela, Mundumira jaialdiak antolatzaileek iragarritako parte-hartze masiboa ez izatea ez da porrota inolaz ere. Poliki-poliki esnatzen ari gara, eta Mundumira bezalako proposamenak printzearen musuak baino ez dira guretzako.

Mila esker, Mundumira aurrera ateratzeko lanean ibili zareten guzti guztiei. Eskerri asko!

JOSE ANGEL ITURBE
Arrasate

Igerilekuko prezioak

Gaur goizean Bergarako igerilekuan egon naiz eta ezusteko ederra hartu dut sarreraren prezioa jakin dudanean, 3,75 euro (625 pezeta) hain justu ere. Ez al da gehiegi utzi diguten putzutxoan bainu bat hartu ahal izateko? Nik hala uste dut, behintzat, zerbitzu publiko bat izanik ez dagoelako guztion eskura.

Lotsagarria iruditzen zaidanez igerilekuaren gainean gertatzen ari den guztia, Udalak herritarrengan ere pentsatzea eskatzen dut.

MIREN IRAETA
Bergara

Mundumira

Zoriondu nahi dut Mankomunitatea Mundumiragatik. Debagoienean defizit handia daukagu kultura ekipamendu, eskaintza, eta aisialdirako zerbitzuei dagokionez. Gurea lanerako eskualdea da eta aisialdiaz disfrutatzeko kanpora irteten gara. Horregatik, hemen bizi garenontzako kultura eta aisialdi zerbitzuak eskaintzeko esfortzuak egitea ondo iruditzen zait eta modu bateratuan, udalen elkartearen bidez, egitea hobe.

Baina hainbat zehaztasun egin nahi ditut: zalantzan jartzen dut Mundumira den debagoiendarrok behar dugun kultura eskaintza, kostua eta jendearen erantzuna kontuan izanda. Bestalde, aparkalekuak eta autobus zerbitzu egokia ipintzea ondo iruditzen zait, baina beti, ze igandean, esaterako, Arrasate erdiko edozein tokitan aparka zitekeen. Horregatik gustatuko litzaidake ibarreko talde edo elkarteren batek kultur ekitaldi bat antolatzen duenean, administrazioak laguntza eskaintzea aparkalekuak atontzeko eta ganorazko autobus zerbitzua ipintzeko.

J. ETXEBARRIA
Arrasate

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Natali Martínez, Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Urteko merkaturatze handiena dator • Citroënek, 2004 urteko munduko rally txapeldunak, Citroën C4 berria aurkezten du. Teknologiak duen botere guztia, bere alorreko aerodinamika onenarekin. Bi modelo, coupea eta 5 atekoa, bertsioen arabera bere kategoriako kotxerik aurrerakoiena bihurtzen duten ekipamenduarekin: nahi gabeko karril aldaketarako alerta sistema • aginte zentral finkoak dituen bolantea • telefonoa atxikia duen Navidrive nabigatze sistema • ESP, ASR, ETA ABS seguritate sistema aktiboak, balaztatze banatzaile elektronikoarekin eta urgentziaz balaztatzeko laguntzarekin • Bi-xenon faro autodirekzional • Motorizazioak: Diesel HDi 138 ZP-rainokoa eta gasolina 180 ZP-rainokoa.

Kontsumo mistoa (l/100 Km.) / CO_2 igorpena (g/Km.): C4: 4,7-8,4/125-200

Aurkezten den modeloa Citroën C4 Coupé VTS.

ETOR ZAITEZ: **TALLERES CHAPIME.** Citroën kontzesionario ofiziala
San Andres auzoa 5. Tel.: 943 79 45 22. Arrasate
Ondo pasa San Juan jaiak!

CITROËN
NO TE IMAGINAS LO QUE CITROËN PUEDE HACER POR TI

Gazte ikastaroak

ARGAZKIGINTZA DIGITALA

Antonio Murilloren eskutik
Hastapen maila (Photoshop)

- Egutegia: uztailaren 4tik 20ra
- Noiz: astelehen eta eguaztenetan
- Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara
- Non: EPAko egoitzan (Ferrerias kalea 28)
- Matrikula: 15 euro / ikasle eta langabeek 10 euro

CAPOEIRA BRASILGO DANTZA

Igor Ezpeletaren eskutik

- Egutegia: uztailaren 5etik 20ra
- Noiz: martitzen eta eguenetan
- Ordutegia: 19:00etatik 21:00etara
- Non: Monterronen
- Matrikula: 15 euro / ikasle eta langabeek 10 euro

MENDIKO ORIENTAZIOA

Emakume Txokoak antolatua

- Egutegia: uztailaren 5ean, 7an eta 9an (5ean eta 7an teorikoa eta 9an praktikoa)
- Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara
- Non: Emakumeen Txokoan
- Matrikula: 6 euro (arrasatearrentzat) / langabeak 3 euro / kanpokoak 9 euro

Izenemateak: 943 77 00 65

INFORMAZIO ZEHATZAGOA: GAZTE BULEGOA • 943 77 00 65 • *gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila

Podiuma

Mikel Etxabe | XEREZ TALDEKO JOKALARIA |

XABIER URTZELAI

Entrenamendura bidean harrapatu dugu Mikel, eta esan digu azken egunotan Euskal Herriko hainbat komunikabidetatik deitu diotela. Ondo daki Xerezek inoiz baino jarraitzaile gehiago izango dituela Cadizen kontrako derbian. Horren gainean egin dugu berba.

Eibartar guztiak eta euskaldun asko izango dira asteburuan Xerezen alde.

Bai, Eibar gure emaitzaren zain dago, eta alde horretatik, guk daukaguna emango dugu derbia irabazteko. Lehenago, baina, Eibarrek bere norgehiagoka irabazi beharko du.

Jendea ibili da esaten Xerez eta Cadiz gertuko taldeak direla...

Bai, baina gertutasun horregatik dago bi taldeen artean horrenbesteko lehia. Bi taldeetako jarraitzaileak gaizki konpontzen dira, eta hemengo derbiek ez dute zerikusirik Euskal Herrikoekin, adibidez. Hemen ez dago kontrarioaren herrira joan eta alde zaharrean parrandan batera ibiltzerik, hori pentsaezina da. Gu Cadizen izan ginenean poliziaz beteta joan ginen, eta hangoek ez ziguten harrera batere goxoa egin. Orain, eurek etorri behar dute hona.

Ze giro bizi duzue hor?

Hemengoak deseatzen daude Cadizi igoera zapuzteko, gurago dute Eibar igotzen bada. Mailari eusteko beharrezkoak ziren 50 puntuak eskuratu genituenean, zaleek gauza bakarra eskatu ziguten: geratzen ziren norgehiagoka guztiak galduta ere, azkeneko norgehiagokan, Cadizi irabaztea. Pentsa, gaur tailerrera eraman dut autoa, eta mekanikariek ere esan didate derbia irabazi egin behar dugula. Kalean ez dugu besterik entzuten.



GOIENKARIA

Etxabek espero du Cadizen kontrako derbia jokatzea.

"Tailerrera eraman dut gaur autoa, eta mekanikariek ere esan didate zapatuan Cadizi irabazi egin behar diogula"

Zaleak gain-gainean izaten dituzue, hortaz.

Onerako eta txarrerako, hemengo jendeak asko bizi du futbola, baina oso muturrekoak dira. Gauzak ondo egindakoan, munduko onenak izaten gara, baina gaizki eginez gero...

Cadizen jokatu zenutenean, kontrarioak sarrera gutxi eman zizkion Xerezi. Zapatuan, berriz, Cadizko zale mordoa etorriko dira.

Bai. Cadizkoak min egin zien hemengo jarraitzaileei, oso sarrera gutxi izan zituztelako. Xerezek, berriz, sarrera mordoa utzi dizkio Cadizi, eta normala ere bada. Azken baten, gure taldearendako diru-sarrera polita lortzeko aukera paregabea da, eta jokalariok ere futbol zelaia beteta dagoenean eskertu egiten dugu, nahiz eta harmailetan beste taldearen aldeko zale asko egon. Giro ederra egongo da, eta hori ere garrantzitsua da.

Horren harira, dagoeneko badakizu jokatuko duzun?

Oraindik ez. Orain daukagu entrenamendu saioa (eguazten arratsaldea), baina zapatura arte asko geratzen da. Azkeneko partiduan jokatu egin nuen, eta irabazi egin genuen. Espero dut titular izatea.

Hamazazpi norgehiagoka jokatu dituzu, eta hamabost aldiz izan zara lehenengo hamaikakoan. Zelako denboraldia izan da?

Ba, egia esateko, oso ona ez. Titular hasi nintzen, baina belaunean lotailu-haustura izan nuen. Hiru hilabete behar izan nituen errekuperatzeko, eta jokatzen hasi nintzenean beste arazo batzuk izan nituen: mikro-haustura bat, beste lesio bat...

Datorren denboraldia garrantzitsua izango da.

Bai, neuretako oso garrantzitsua. Xerezekin daukadan kontratua amaituko zait, eta garrantzitsua izango da partiduak jokatu eta denboraldi ona egitea. Horrelakoetan azken denboraldia da balio duena, eta urte ona eginez gero, aukera gehiago izango ditut.

Ibarreko alebin mailako 8nako futboleko finala, bihar

X.U.

Bihar goizean jokatuko dituzte Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian Leintz Eskola Kirolak eta Realak antolatu duten alebin mailako 8nako futbola. Hainbat jardunaldi egin eta gero, bihar jokatuko dituzte finalak. 09:00etan hasiko dituzte norgehiagokak.

Maila txikietako futbol eskaintza areagotu guran (jakina da Athleticek nola estutzen duen) Leintz Eskola Kirolekoek alebin mailako txapelketa antolatu zuten, Realak lagunduta. Hala, orain dela bi aste ibarreko neska-mutikoak Zubietan izan ziren, eta ordukoak dira Nihatekin eta Donostian bisitan zegoen Tayfunekin egindako erretratuak.

Kontua da txapelketa hori azken txanpan dela, bihar jokatuko dituztelako finalak. Goizeko lehenengo orduan jokatuko dituzte nesken partiduak (09:00etatik 10:00ak arte), eta gero izango da mutilen txanda.

PARTE-HARTZE HANDIA

Neska-mutiko mordoa elkartuko dira bihar Ibarran. Hortxe izango dira Arizmendiko hainbat gunetako ordezkariak. Eurekin batera lehiatuko dira Lays taldea, Garagartzako Leze Txiki, Arrasateko Solano Txiki, Aretxabaletako Kurtzebarri, Okorotegi edo Bergarako Madura 94, besteak beste.

BIXEN CALZON

Zubietan egindako jardunaldian, ibarreko gazteak pozik, Nihat eta Tayfunekin.

Kirolabur

ESKORIATZA/IGERIKETA

Igeriketa proba egingo dute bihar, zapatua, Eskoriatzan (14:30). Lehenengo aldia da Debagoienean horrelako txapelketa bat antolatzen dutena.

Izan ere, hemengo txapelketetara ibarreko gutxi eta kanpotar asko etortzen dira. Oraingoan, baina, ibarreko 100 neskamutikok baino gehiagok hartuko dute esku.

ZIKLISMOA/ZIGORRA

Liberty Seguros taldeak erabaki du Alberto Garai mediku arrasatearra taldetik kanpo uztea, talde horretako bi txirrindularik (Isidro Nozal eta Nuno Ribeiro) gehienezko hematokrito tasa gainditu zutelako joan den hilean.

Zigor modura, bi ziklista horiek ezin izan dute egin berri diren Italiako Giroan eta Dauphine Libere proban esku hartu. Ikusi egin behar taldean jarraitzen duten.

ARRAZOLA/GIZON PROBA

Bihar egingo dute Aramaioko, Arrasateko eta Arrazolako koadrilek Gizon Probak. Dagoeneko badira hiru urte proba hori lehenengoz egin zutena, eta joan den urtean batu ziren aramaioarrak.

Arrazolan egingo dituzte proba horiek, baina Aramaion hasiko dute lehenengo proba, mendiko lasterketa. Aurten ere Besaideren jabetza egongo da jokoan.

OÑATI/BATZARRA

Gaur, egubakoitza, egingo dute Aloña Mendiko futbol taldekoek urteroko batzarra (19:30ean). Denboraldiaren balantzea egingo dute, emaitza ekonomikoak erakutsiko dituzte eta datorren denboraldiari begira, bazkideek proposamen berriak botatzeko aukera izango dute.

Urteroko afaria egingo dute gero, eta jokalari nabarmenei sariak emango dizkiete.

ARRASATE/GIMNASIA

San Juan jaien barruan, Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldeko neskek erakustaldia egingo dute gaur (18:00etan) Seber Altube plazan.

Hala, kiroldegira edo pilotalekura joan barik, gaur arratsaldean aire librean ikusi ahal izango dituzue gimnastek egiten dituzten saioak.

ELGETA/PILOTA

Poliki-poliki, Elgetako 4 t'erdiko ETB Kantxa Txapelketa badabil azken txanpan sartzen, gaur ilunkeran jokatuko dituzte-eta finalerdiak. 20:00etan jokatuko dute, kadete mailan, Beroizek eta Idoatek.

Eta 23 urte azpiko txapelketan, Berasaluze eta Argote izango dira nor baino nor gehiago.

LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA

Begietako mikrokirurgia:
Kataratak: Miopia / Hipermetropia.
Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatua

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

www.goiena.net-eko

BLOG KOMERTZIALAK

Zure negozioa Interneten egoteko modu errazena eta merkeena

Prezioen eta ikastaroen
gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak
Posta-e: azabarte@goiena.com
Tel.: 943 76 92 70

www.goiena.net/blogak/4quattro4
www.goiena.net/blogak/arregi
www.goiena.net/blogak/atai
www.goiena.net/blogak/joseba
www.goiena.net/blogak/ohiak
www.goiena.net/blogak/gallastegi
www.goiena.net/blogak/udalatx
www.goiena.net/blogak/vitoria
www.goiena.net/blogak/udalaitz
www.goiena.net/blogak/pando
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta lau sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!



Har ezazu parte!

Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Epea zabalik dago irailaren 19ra arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
  - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
  - Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
  - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
  - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta *jpg* formatuan.
- Parte-hartzaileek nahi beste argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero ekainaren 20tik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Urriaren 3ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

Sariak

1. saria

Olympus E-300 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 8 milioi pixel.
- Zuiko digital 14-45 mm objektiboa.
- Objektibo aldagarriak.
- Flash eta guzti.
- 1,8 pulgadako LCD pantaila atzealdean.

- **2. saria:** bi gaueko/hiru eguneko egonaldia Kantabria edo Asturiasen Eroski Bidaiak agentziaren eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- **SARI BEREZIA:** parte hartzaile guztien artean zozketatuko den sari sorpresa.

Laguntzaileak:

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK • DISEINUA

GURE AMETSA
JATETXEA

EROSKI bidaiak
merezi duzu

kiñu
argazkilariak

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 21:00etara.

Goienka 2a

Egubakoitza / 2005eko ekainaren 17a

Kultura eta aisialdia

Ekainaren 17tik 24ra

Bitoriano Gandiaga frantziskotarra gogoratu dute izenean. Barruko egoitzek basilikako artisten izenak daramatzate.

Azpian, goitik behera: Lehen solairuko terrazetako bat (antzeko beste bat dago). Topaguneko lehen solairuko harrera-gela (informazio-mahai bat ere badago). Paseatzeko ibilbidea. Terrazetatik zein leihatetik, Arantzazuko paisaia paregabeaz gozatzeko modua dago.

Gainean, goitik behera: Barrualdeko bi frontoiak, behealdean (kanpoan beste bat dago). Topaguneko sarrera, hura ere beheko solairuan, aterpe moduan erabiliko dena. Ekitaldi-areto nagusia, ia 300 lagunendako lekuarekin. Hor egingo dute MCCko ekitaldia bihar, zapatua.

GANDIAGA TOPAGUNEA, ZABALIK

BIHAR, EKAINAK 18, ERABILIKO DUTE LEHEN ALDIZ ARANTZAZUKO ERABERRITUTAKO ERAIKINA

Arantzazuko seminarioa eta inguruko beste azpiegitura batzuk birmoldatzeari ekin zioten frantziskotarrek 2001. urtean. Lanek luze jo dute, baina azkenean gertu dago emaitza nagusia, Gandiaga Topagunea, lehen seminarioa zen eraikina.
Gandiaga Topagunea bihar, zapatua, erabiliko dute lehenengo aldiz, Erromako Eliza Katolikoak kooperatiben sortzaileei egindako aitormen-ekitaldi eta omenaldirako. Hala ere, ez dute egun horretan inauguratuko, irailaren 9an, Ama Birjinaren egunean, baizik.
Eraikin horren zati handiena guztiz eraberrituta dago, eta erabiltzeko gertu. Irailera bitartean, ekintza puntualetarako erabiliko dute. Falta den zatian lanean jarraituko dute; baita inguruko beste eraikin batzuetan, Misterioa gogoeta-etxean eta bisitariendako zerbitzuak hartuko dituen egoitzan. /15

AZALA: IÑAKI ITURBE / ARGAZKIAK: LEIRE KORTABARRIA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko ekainaren 17a

ARANTZAZU/ GANDIAGA TOPAGUNEA

Elkarrekin topo egiteko lekua

ATERPEAK, FRONTOIEK, TERRAZEK ETA HAINBAT EKITALDI-ARETOK OSATZEN DUTE GANDIAGA TOPAGUNEKO ERABERRITUTAKO ZATIA

LEIRE KORTABARRIA

Lau urteko lanen ondoren, Arantzazuko lehen eraikin eraberrituak ateak zabalduko ditu bihar, zapatua. Gandiaga Topagunea da eraikin hori, lehengo seminarioa zena. MCCren ekitaldi bat izango da bere lehen erabilera. Azken ukitu batzuk falta dira, baina gehiena bukatuta dago.

Aspaldiko seminarioaren ordez orain dagoen eraikina da bisitari iritsi berriak ikusten duen lehenengo egoitza, eta hortik antzematen hasten da Arantzazuk urte gutxitan izan duen itxuraldaketa handia. Izan ere, 16.000 metro koadroko seminario erraldoi haren erdia bota, eta 7.000 metro koadroko eraikin askoz apainago bat moldatu dute haren ordez: Gandiaga Topagunea. Eta, seminario hura ezertarako erabiltzen ez zen moduan, eraikin berria herritar guztiek erabiltzeko asmoarekin egin dute. Lehenengo erabilera bihar, zapatua, emango diote, Vatikanoak MCCri egin dion aitorpen-ekitaldia dela-eta: mezaren ondoren, Gandiaga Topagunean egingo dute ekitaldi bat.

LEIRE KORTABARRIA

Gandiaga Topaguneak egiten dio ongietorria Arantzazura iritsi berri den bisitariari.

TOPAGUNEAREN ZATIAK

Gandiaga Topagunearen helburua da jendearendako egoitza bat izatea. Izena ere horren adierazle da: "Gandiagak nahi zuen pertsonek elkarrekin harremanak izan zitzaten; hala, hasieran kultur topagunea izan behar zuen, baina kultura elkarrekin topo egiteko aukera bezala ikusten dugu", azaltzen du Iñaki Berastain fraideak. Asmo horrekin egin dute Topagunea, eta hainbat erabilerarako beste hainbeste gela ditu.

Bi atal nagusi ditu Topaguneak: aurrekoa eta atzekoa. Aurrekoa ia guztiz bukatuta dago.

Atal horretan, beheko solairuak honako zatiak ditu: aterpea, iristen diren taldeak hartzeko; lehengo frontoi handia banatuta egin dituzten bi frontoi estaliak eta kanpoko frontoia. Lehenengo solairuan, harreragela handi bat dago, leihate zabal batekin; han ipiniko dute informazio-mahaia ere. Inguruan, talde txikiek lanerako, batzarretarako... erabiliko dituzten areto txikiak eta ekitaldi-areto nagusia, bihar, zapatua, erabiliko dena; azken horrek ia 300 lagunendako lekua du, eta hiru areto txikitan bana daiteke. Tamaina ertaineko beste bi areto ere badaude, bat egin daitezkeenak: bakar horrek 200 lagunendako lekua du. Areto horiek guztiek Arantzazuko artisten izenak dituzte: Oteiza, Txillida, Egaña, Basterretxea, Muñoz...

Egiteko geratzen da gazteendako edo talde antolatuendako aterpetxe bat. Egoteko edo gaua pasatzeko lekua izango dute han. Horrez gain, beheko solairuan beste gela handi bat utzi dute: han, bisitariendako zerbitzu-gune bat ipintzeko aukera dago: kafetegia, janari eta edari autozerbitzua... Topagunearen beste alderdi baten, taldeendako lan–areto gehiago egokituko dituzte.

Kanpora begira dauden tarte asko ditu Topaguneak: hala, lehen solairuan paseatzeko ibilbide luze bat egokitu dute, eta egoitzaren alde bakoitzean egoteko terraza bana dago.

Topagunearen atzeko atalean, erakusketak ipintzeko lekuak egokituko dituzte.

IRAILETIK AURRERA

Aurrerantzeko helburua izango da Gandiaga Topagunea zelan erabiliko den definitzea.

Zapatuko ekitaldiaren ondoren, ekintza puntualetarako erabiliko dute irailera arte. Hortik aurrera, Bultz-Lan enpresa arduratuko da kudeatzeaz. Hala, erabili nahi duten taldeek enpresa horrekin harremanetan jarriko dira. Frantziskotarren asmoa da Topagunea erabiltzea Arantzazuren izaera –erlijio, kultura eta natura bilgunea izatea– errespetatuz, eta errentagarritasun ekonomikoa bultzatuz. Bultz-Laneko arduradunek diotenez, hainbat enpresa eta erakundek Topagunea erabiltzeko interesa adierazi dute dagoeneko, eta kongresuak, enpresen batzarrak edo ekitaldiak, ikastaroak... egongo direla aurreikusten dute. Hala ere, horiek guztiak irailetik aurrera izango dira.

Misterioa, gogoeta-gunea

Misterioa deitu diote Topagunearen ondoko eraikin txikiagoari, Jorge Oteizaren eskulturaren atzetik (eskultura bera eraikinaren ondoan dago). Gogoetarako eta otoitzerako isiltoki bezala erabiliko dute hori. Han ere, egokitze lanak aurrera doaz, nahiz eta kanpotik dagoeneko gertu dagoen. Hura ere irailaren 9rako gertu eduki beharko dute, sorta arkitektoniko berri guztia inauguratzeko.

Gandiaga Topagunea eta Misterioa elkarrengandik hurrean daude; itxura aldetik, estilo berekoak dira, eta eurek biek sorta bat osatzen dute. Biak batera natura balio handiko ingurune baten daude. Hain zuzen, jendeak garai baten mendira igotzeko erabiltzen zituen bidezidorrak birmoldatu dituzte frantziskotarrek, eta Topagunera zein Misteriora joateko, horiek erabiltzen dira. Horixe zen frantziskotarren helburuetako bat: erlijioa, eraikinen erabilera soziala eta izadia bateratzea.

Topaguneaz eta Misterioaz gain, hirugarren eraikin nagusia da bisitariendako zerbitzuak izango dituen eraikina. Hori aparkalekuen alboan dago. Han, Mankomunitateko informazio-gunea, oroigarrien denda eta komunak ipiniko dituzte.

LEIRE KORTABARRIA

Jorge Oteizaren *Misterioa* eskultura, izen bereko eraikinean.

Zapatuko ekintzak

Arantzazuk kooperatibismoarekin izan duen harreman estua dela-eta erabaki zuten biharko ekitaldia hantxe egitea. Juan Paulo II.a aita santua zenak kooperatiben sortzaileei egindako errekonozimendu ofiziala ospatuko dute egun horretan.

Juan Maria Uriartek, Donostiako gotzainak, meza esango du 11:00etan, Jose Maria Setien lagun duela. 12:15ean, batzar-areto nagusian ekitaldia egingo dute. Besteak beste, MCCko kideei agiriak eman eta dominak ezarriko dizkiete.

LIBURUA/ ‘DRAGOIEN ORROA’ AURKEZTUKO DUTE ARETXABALETAN

KMK literatura lehiaketako emaitza

‘DRAGOIEN ORROA’ LIBURUA KALEAN DA. HAMAR LEHIAKIDEREN EKARPENAREKIN EGIN DA; NAGUSIKI, BERGARAR BATENAREKIN

LEIRE KORTABARRIA

Gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute Aretxabaletan *Dragoien orroa*, Kilometroak 2005en literatura lehiaketako emaitza. Arizmendiren egoitza nagusian izango da, 18:30ean. Liburua Fernando Morillok idatzi du, beste 10 lagunen ekarpena erabilita.

Lehiaketaren helburua zen Fernando Morillok hasitako kontakizun bat bukatzea. Hori sei orritan egin behar zuten lehiakideek. Hamar lan aurkeztu ziren, eta horietatik Roberto Izagirre eibartarraren lana aukeratu zuen epaimahaiak. Izagirreren lana erabili du nagusiki Morillok istorioa bukatzeko. Hala ere, salbuespen bat egin dute: lan guztietan aurkitu zituzten ideia onak, eta istorioan horiek ere erabili dira; antolatzaileen esanetan, “denak zeuden ondo, eta oso zaila zen denen ideiak ez hartzea”. Hala, liburuan, Roberto Izagirre ez ezik, gainerako parte-hartzaileak ere aipatuta agertzen dira, “gutxieneko sari moduan, eta egindako lana eskertzeko, ez baita txikia izan”, esan du Fernando Morillok. Jabetza intelektuala Morillorena da, azken baten hark idatzi duelako liburua.

Dragoien orroa, lehiaketako emaitza, gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute Aretxabaletan. Fernando Morillo, liburuaren egilea; Xabier Mendiguren, Elkar argitaletxekoa; Andoni Muxika, Kilometroak 2005eko antolakuntza taldeko kidea, eta Roberto Izagirre, irabazlea, izango dira hizlariak; gonbidatuta daude, zelan ez, sariketan parte hartu duten beste bederatzi lagunak ere. Izagirreren lana izan denez gehien erabili dena, beretako da saria ere, eta ekitaldian bertan emango diote: liburuan aipatzeaz gain, asteburu bat nekazari turismo baten.



ELKAR

Elkar argitaletxeak plazaratu du Kilometroak 2005eko lehiaketako emaitza.

Horrez gain, Debagoienetik kanpo, aurkezpen orokorra ere gaur egitekoak ziren. Hala, eguerdian ziren liburua Donostian, Koldo Mitxelenan, aurkeztekoak.

TEKNIKA ERAKARGARRIA

Gazteendako moduko liburua da *Dragoien orroa*. Fernando Morillok hasitako istorioa Debagoienean girotuta zegoen, eta kutsu mitologikoa zuen; hala, Arrasateko dragoia da pertsonaietako bat. Kilometroak festa ere aipatzen zuen.

Egileari eta irabazleari, bioi erakargarria iruditu zitzaien lehiaketa mota hori: “Ideia interesgarria iruditu zitzaidan: testu ireki bat eskegitzea Internet-en, ideiak jasotzeko, eta gero horien arabera osatzea nobela. Idazteko modu ezberdina zen”, esan du Fernando Morillok. Roberto Izagirrek, irabazleak, hori bera azpimarratzen du: “Bitxia iruditu zitzaidan, eta aspalditik nenbilen zerbait beste batekin erdi bana idazteko gogoarekin”.

ROBERTO IZAGIRRE / LEHIAKETAKO IRABAZLEA

“Pena izan nuen hemengo euskara erabili ezin izanaz”

Eibartarra jaiotzez, Bergaran bizi da urte askoan Roberto Izagirre, *Dragoien orroa* bukatu duena. Idaztea da bere zaletasuna, eta Kilometroak 2005-ekoa da irabazi duen azkeneko lehiaketa.

Zelan asmatu zenuen istorioaren bukaera?

Zaila zen, iragana eta oraina uztartzen zituelako, pertsonaia asko zituelako... Gainera, sei orri zen muga, oso tarte txikia. Plano biak uztartu eta zintzilik zeuden puntak lotu nituen. Gustura geratu nintzen egindakoarekin. Horixe da nire helburua literatura lehiaketetan, gustura geratzea.

Idazkera aldetik, zelakoa da kontakizuna?

Gazteei zuzenduta dago, 14-15 urte ingurukoei. Denok ulertzeko moduko hizkuntza da. Penaz geratu nintzen hemengo euskara erabili ezin izanagatik, hasiera idatzita zegoelako. Arrasaten girotuta dago eta erabiltzen den euskara ez da hangoa, baina tira...

Nahiago izaten duzu emandako gaian idatzi ala zure kasa asmatutakoa?

Bietara, unearen arabera. Edozelan ere, beti gauza laburrak gustatzen zaizkit; esaterako, Berrigara amodiozko gutun lehiaketara eta beste askotara aurkeztu izan naiz.

KIA
KIA MOTORS

KIA SPORTAGE
Gasolina/Diesel
19.155 eurotik
aurrera*

ESKAINTZA BEREZIAK

KIA CARNIVAL
Gasolina/Diesel

KIA PICANTO 1.0 / 1.1
“0 km” azken unitateak
6.580 eurotik aurrera*

Tecnocar

Honda eta Kia
banatzaile ofiziala

TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g – Arrasate
943 79 22 67 –
Faxa: 943 71 27 38

Adi!
• **3** urteko garantia
• **0 km** aukera bereziak

*Prever plana barne.
**Ekainean eta uztailean
balioko du eskaintza honek.

HONDA
The Power of Dreams

ESKAINTZA BEREZIA
HONDA CIVIC gama osoan**
Auto berriak eta 0 km

DESKONTU SINESTEZINAK
3.000 0 km ibilgailuek, **eurorainoko deskontua!**

HONDA CIVIC (5 ate)
Gasoli./Dies.
15.300 eurotik aurrera*

HONDA CIVIC (3 ate)
Gasoli./Dies.
13.300 eurotik aurrera*

Ekainak 17-24

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

MATRIKULAK

ARRASATE

► **AEK euskaltegiek** uztaileko ikastaroetarako izenemate epea zabaldu dute. 1. eta 2. mailako prestakuntza, EGA eta Hasiera ikastaroak emango dituzte. Izena emateko, jo Arrasateko Erdu euskaltegira (943 77 03 69) edo Bergarako Akulura (943 76 95 18).

DEBAGOIENA

► **Udako Euskal Unibertsitateak** Eibarren emango ditu eskolak uztailaren 11tik 15era. Bost ikastaro antolatu dituzte. Matrikula egiteko epea ekainaren 19an amaituko da. Izena eman daiteke *ikastaroak.ueu.org* webgunean.

DEIAK

ARETXABALETA

► **Odol-ateratzeak** egingo dituzte hilaren 20an, astelehena, osasun zentroan, 16:00-20:00 ordutegian.

ARRASATE

► **Ilatargi Astronomia Taldeak** espazioaren esplorazioaren gaineko hitzaldia antolatu du. Bittor Rodriguezek egingo du martitzenean, hilak 21, Monterronen, 19:30ean.

► **Bertso jaialdia** egingo dute bihar, zapatua, Monterron parkean, 22:30ean. Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Enaitz Alustiza, Jon Maia eta Amets Arzallus bertsolariak arituko dira; gai-jartzaile Lierni Altuna izango da. Eguraldi txarra badago, Amaia antzokian egingo dute.

BERGARA

► **Jolasleku ibiltaria** Simon Arrietan egongo da gaur, egubakoitza, 17:00-19:00 ordutegian.

► **Gaztetxearen 5. urteurrena** dela eta, honako ekintzak egingo dituzte: gaur, egubakoitza, *Mutazutani* antzezlana, 17:10ean; bihar, zapatua, bazkaria 14:00etan; segidan, xake txapelketa, magia saioa eta, 22:00etan, ska-reggae festa; eta etzi, domeka, 19:00etan, tertulia.

► **San Martzialgo erromeriarako** mahaiak eta aulkiak errentan hartzeko daude. Horretarako egunak dira hilaren 20tik 27ra bitartean, biak barne, astegunetan, kultura etxean, 17:00-20:00 ordutegian.

DEBAGOIENA

► **13. Denontzako Kirol Jaia** egingo dute uztailaren 9an, zapatua, Arrasateko Iturripe kiroldegian. Hala, gutxitu fisikoek kirola egiteko aukera izango dute. Izenematea zabalik dago 943 77 91 67 telefono zenbakian.

► **Biblioporrak** udarako liburu eta ikus-entzunezkoen gomendioen gida kaleratu dute udal liburutegiek. Debagoieneko liburutegi guztietan daukazue esku-orria.

ELGETA

► **Errepresioaren gaineko asteburua** antolatu du Esna Adi taldeak. Gaur, egubakoitza, Jose Mari Etxaniz eta Jose Luis Elkorok berbaldia egingo dute; bihar, zapatua, torturaren aurkako taldeak bideoa emango du, 17:30ean. Ekintzak gaztetxean izango dira.

► **Auto klasikoen eta kirol-automobil historikoen** lehenengo kontzentrazioa egingo dute etzi, domeka. 11:00etan, erakustaldia izango da Herriko plazan; 13:30ean, Asentziora joango dira; segidan, erakustaldia plazan 17:00ak arte.

► ***Gerra zibila Elgetan*** delako hitzaldia egingo du Jesus Gutierrezek eguaztenean, hilak 22, Espaloia antzokian, 19:30ean.

► **Ardo-dastatzea** egingo dute eguenean, hilak 23, Espaloia antzokian, 20:00etan.

ESKORIATZA

► **Aste Zapatistaren** azken ekintzak egingo dituzte egunotan. Gaur, egubakoitza, *Zapatismo y utopía* liburua aurkeztuko dute kultura etxean, 19:00etan. Bihar, zapatua, Txiapas Eguna egingo dute: umeendako mural margotzea, herri poteoa, bazkaria, jolasak, kalejira eta kontzertua izango dira. Bazkarirako txartelak salgai daude Inkernu eta Naira tabernetan.

► **Madrilera irteera** antolatu du Amuska emakume elkarteak asteburu honetarako. Bazkideendako, 100 euro da prezioa; gainerakoendako, 110.

OÑATI

► **Odola emateko** aukera dago gaur, egubakoitza, Txantxiku ikastolan, 18:00etan.

OSPAKIZUNAK

BERGARA

► **I. Bergarako Trikiti Festa** ospatuko dute bihar, zapatua. 12:00etan, kalejira batekin hasiko dute eguna. Segidan, bazkaria, erakustaldia, afari-merienda, kalejira eta, 22:30ean, erromeria egingo dituzte. Otzara baten zozketarako txartelak saltzen egongo dira.

► **Ikasturte bukaera** ospatuko dute San Martin Agirre, Ipintza eta Miguel Altuna ikastetxeek. Gaur, egubakoitza, txupinazoa, pregoia eta horma-irudiak egingo dituzte; hilaren 20an, jaialdia izango da; 21ean, pilota txapelketako finalak; 22an, jolas tradizionalak; 23an, euskal dantzak, eta 24an, txangoa.

ESKORIATZA

► **Herriko edadetuek** jaialdia izango dute eguenean, hilak 23, erretiratuen etxean, 17:30ean.

IKASTAROAK

BERGARA

► **Bergara Dantzan egitasmoaren barne,** erromeria dantza ikastaroa egingo dute ekainaren 20an, astelehenean, hasita. Abarka dantza taldeak antolatu du. Eskolak Aranzadi ikastolan izango dira astelehen eta eguaztenetan, 19:00etan. Doan da.

ESKORIATZA

► ***Zure seme-alabak babestu*** delako ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZGunean, 18:00etatik 19:00etara bitartean.

OÑATI

► **Elkar Hezi ikastetxeak** bi ikastaro antolatu ditu: bizikletak konpontzekoa eta bide-hezkuntzakoa egingo dute hilaren 23 eta 24an; eta larrugintzarena, hilaren 28tik 30era. Biak ikastetxean bertan izango dira, 17:00etan.

MUSIKA

ARETXABALETA

► **Esteban Irustak,** Oñatiko parrokiako organo-joleak, emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, agustindarren komentuan, 19:30ean.

ARRASATE

► ***Txuma*-ri omenaldi kontzertua** egingo dute gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 22:30ean, Ileon, Keu, Queens of Rock eta Egus taldeek. Segidan, DJak.

► **Javi Heras bakarlariak** *Creciendo* bere bigarren lana aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Gure-Leku tabernan, 23:00etan.

► **Los Hijos Bastardos de Ortophonk, El Quinteto de la Muerte eta The Gaupasa Kings** taldeek joko dute bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 22:30ean. 5 euro da.

► JAIAK

SAN JUAN BEZPERA OSPATUKO DUTE IBARREKO HAINBAT HERRIK

San Juan bezperako ospakizun handienak Arrasaten izango dira ekainaren 23an, eguena: umeendako jolasak, makala jasotzea, danborrada eta, jakina, San Juan sua. Baina, Arrasatek ez ezik, Debagoieneko beste herri batzuek ere ospatuko dute San Juan bezpera. Hala, eguenean, su-garrek eta ospakizun ekitaldiek girotuko dute iluntze partea. Aretxabaletan eta Eskoriatzan, adibidez, gazteek tantaia jasoko dute, eta sua piztuko dute Herriko plazan. Antzuolan ere ekitaldi horiek biak antolatu dituzte, eta baita, ohitura duten moduan, dantza emanaldi bat eta balkoi eta lore apaingarrien lehiaketak. Bestetik, Bergaran, San Juan bezperako kalejira egingo du Udal Txistulari Bandak 20:00etan.

Non: Arrasaten eta beste zenbait herritan. **Noiz:** ekainaren 23an, eguena. **Ordua:** Arbola jasotzea eta sua, iluntzean.

C&C
AKADEMIA
Matrikula zabalik!
LLONGUERAS
IRAKASKUNTZA ZENTROA
ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA
Aurrena, eta zugandik gertu! Euskal Herriko irakaskuntza zentro bakarra!
C&C Llongueras diploma ofiziala
Titulo ofiziala (3. maila) Erresuma Batuan
Nazioarteko lan-poltsa
Olagibel kalea 61, behea. GASTEIZ.
Tel.: 945 12 03 60 • Posta-e: ces-llongueras@ya.com

► **Los Sparrer eta Never Surrender** taldeen emanaldia izango da eguenean, hilak 23, 3.60 aretoan, 22:30ean. 04:00etan, hiru DJ arituko dira.

BERGARA

► **Misfits** taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan. Beste talde batek ere joko du. Sarrera da 20 euro.

► **Dio** bakarlariak (Black Sabbath taldeko abeslari izan zenak) *Master of the Moon* diskoa aurkeztuko du bihar, zapatua, Jam aretoan, 20:00etan. Sarrera, 22 euro.

► **Anthrax** taldeak emanaldia egingo du etzi, domeka, Jam aretoan, 20:00etan. Beste talde batek ere joko du. 22 euro da sarrera.

► **The Queers** taldeak *Summer hits nº 1* diskoa aurkeztuko du eguenean, hilak 23, Jam aretoan, 21:00etan.

ELGETA

► **Txuma Murugarren** bakarlariak *Nire anaiaren kotxeko argiak* diskoa aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean.

OÑATI

► **Nadek** taldeak aurkezpen kontzertua egingo du bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:00etan, Ikastolako DBHko 4. mailako ikasleek antolatuta.

LEHIAKETAK

ARRASATE

► **Margo azkarren kaleko** lehiaketa egingo dute bihar, zapatua, Alde Zaharrean. 08:00etan hasiko da, eta 14:00etarako bukatu beharko dituzte margolanak. Lehenengo saria da 1.500 euro eta txapela; bigarrena, 750; hirugarrena, 420, eta gazteen eta umeen kategorietan ere sariak egongo dira.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

► **Epi Pérez** margolariak bere lanak erakutsiko ditu bihar eta etzi, zapatua eta domeka, Olaran etxean.

ELGETA

► **Fusilatuak Gerra Zibilean** delako erakusketa ipini du Aranzadi Elkarteak Espaloia antzokian. Hil osoan egongo da zabalik.

Zinema

ANTZUOLA

■ **FRONTOI TXIKIA**

El lobo
Egubakoitza: 22:30.

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

Descubriendo Nunca Jamás
Egubakoitza: 22:30.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Ekainean ez da zinema emanaldirik egongo.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

Collateral
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Star wars, episodio 3
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

Madagascar
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Tapas
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Los sexoadictos
17:30, 20:00, 22:30.

Star wars, episodio 3
17:00, 19:45, 22:30.

El reino de los cielos
19:45.

Kops
Egubakoitza: 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

Danny the dog
17:30, 22:30.

Madagascar
17:30, 20:00, 22:30.

Batman begins
17:00, 19:45, 22:30.

Tercera identidad
17:30, 20:00, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Star wars, episodio 3
17:00, 19:55, 22:30.

El reino de los cielos
17:00, 19:55, 22:30.

Coach Carter
17:00, 19:55, 22:30.

Madagascar
17:30, 19:45, 22:45.

Un rey en La Habana
17:30, 19:45, 22:45.

Hierro 3
17:30, 19:45, 22:45.

Batman begins
17:10, 19:45, 22:45.

La intérprette
17:00, 19:55, 22:30.

Sahara
17:20, 20:00, 22:35.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

A good woman
17:30, 20:00, 22:30.

Familia rodante
17:30, 22:30.

Primer
17:30, 22:30.

A la vuelta de la esquina
20:00.

Fugitivos
17:30, 20:00, 22:30.

Tapas
18:00, 20:15, 22:30.

Perder es cuestión de método
Egubakoitza: 17:30, 20:00.
Zapatua eta domeka: 20:00.

Exils
18:00, 20:15, 22:30.

Pasos
18:00, 20:15, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Un rey en La Habana
22:20, 00:45.

Robots
16:00, 18:05.

El reino de los cielos
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Madagascar
16:00, 18:05, 20:15, 22:30, 00:45.

XXX 2 - Estado de emergencia
20:05, 22:30, 00:45.

Cosas que hacer antes de los 30
20:00, 22:15, 00:30.

Star wars, episodio 3
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Un canguro superduro
16:00, 18:00.

Danny the dog
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Million dollar baby
16:00, 19:00.

Batman begins
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Hechizada
16:00, 18:05, 20:10.

Habana blues
22:00, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Tapas + Bitter Kas film laburra
18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Madagascar
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

La intérprete
19:55, 22:20, 00:45.

El reino de los cielos
12:15, 15:50, 18:50, 21:50, 00:40.

Million dollar baby
12:15, 15:30.

El internado
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

El gran golpe
20:15, 22:15, 00:15.

Batman begins
12:15, 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.

XXX 2 - Estado de emergencia
Egubakoitza: 16:30, 18:30, 00:30.
Zapatua: 16:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:30.

Bob esponja
12:15, 16:55.

Un canguro superduro
12:15, 16:05, 18:05.

Kung-fu-sión
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Danny the dog
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Star wars, episodio 3
12:15, 16:15, 18:00, 19:00, 20:45, 21:45, 23:30, 00:30.

Robots
12:15, 16:15, 18:15.

Un rey en La Habana
Egubakoitza: 16:00, 18:00, 00:00.
Zapatua: 16:00, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 22:00.

11:14, destino fatal
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

La intérprete
19:30, 22:05, 00:45.

Sahara
19:30, 22:00, 00:45.

Kung-fu-sión
12:00, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Robots
12:10, 17:10.

El reino de los cielos
12:00, 16:05, 19:05, 22:05, 01:00.

Tapas
20:10, 22:20, 00:30.

Un canguro superduro
12:15, 17:30.

Batman begins
12:00, 16:10, 19:10, 22:05, 01:00.

Star wars, episodio 3
12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Madagascar
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

No sos vos, soy yo
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Soñando, soñando, triunfe patinando
12:20, 16:00, 18:00.

Heffalump
12:20, 16:30.

Reinas
18:00, 20:10, 22:25, 00:45.

La maldición
19:45, 00:30.

Tercera identidad
12:10, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

20 centímetros
12:00, 17:15, 22:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Descubriendo Nunca Jamás: ●●●● / ***Million dollar baby:*** ●●●● / ***La última primavera:*** ●●● / ***Tapas:*** ●●● / ***La intérprete:*** ●●● / ***Reinas:*** ●● / ***Star wars, episodio 3:*** ●●

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

5X2

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: François Ozon.
AKTOREAK: Valeria Bruni-Tedeschi, Stéphane Freiss.

François Ozon-ek, zuzendari gaztea izan arren, baditu film batzuk egin da. Lan bat bukatzen duenean hurrengoari ekiten dio, eta horrela ia urtero bere film berri bat ikusteko aukera izaten dugu. Mota askotariko filmak egiten ditu, baina thriller-a eta bikoteen gatazkak gustuko ditu. Bere lan ezagunenen artean *8 mujeres, Bajo la arena* eta *Swimming Pool* daude. *5x2* filmaren kasuan, ez ditu thriller-en ezaugarriak erabiltzen (ia esan daiteke thriller kontrako bat dela), baina bai bikoteen gatazkak.

5x2 filmak thriller-etik ihes egiten du. Thriller-etan misterioak eta gauzek nola bukatuko duten garrantzi handia badute ere, azken film hau bukaeratik hasten zaigu, bikote baten dibortzioarekin, hain zuzen ere. Bost pasarte desberdinetan zatituta dago, zati batetik bestera Italiako abesti famatu bat erabiliaz eta irudia beltzera ixten pasatzen da (istorioaren egitura eliptikoa argi lagatzeko). Zati bakoitzak denboran atzera egingo du, azkenean bikotearen lehenengo harremanetara heldu arte. Pasarte bakoitzak bikotearen harremanen momentu adierazgarri bat erakusten digu, pertsonaiek momentu konkretu

